

## EMILE LARRE

Jaun-andereak, agur bero bat denei.

Hemen gaude beraz, Andres Urrutia euskaltzainburuaren itzulian bilduak, ohoratzeko iragan urtean mundu honetarik joan zaizkigun lagun eta adiskideak. Horietarik izaki Emile Larre baigorriar apezka, euskaltzale guziz suharra, euskaltzain kartsua eta luzaz izana *Herria* astekariaren zuzendari. Emilek aurten beteko zituen, urtarrilaren 3an, bere 90 urteak. Iaz, maiatzaren 30a zen, larunbata, berria burrustan hedatu zelarik, Emile pausatu zela. Denak inarrosi gintuen berri horrek baina nehor ez hainbat harritu haatik, bagenekien egunetik egunerat ahultzen ari zela. Baigorriko elizan ukan zituen ehorzketa batzuk jendetsuak bezain hunkigarriak, esker oneko kantu ozen baten parekoak...

Galdetua izan zait ene lekukotasunaren agertzea baina iruditzen zait, Emileren harat-honatak aipatu behar-eta, nihauren baitarik erraten ahal ditudan guziak baino gehiago balio dutela Emile Larre zenak berak zabaldu idazkiek. Utzia digu, alabaina, besteak beste altxor bat zinez paregabea, euskara eder batean landua, bere bizi guziari behako sarkor bat eman, ez espantuka ariz, ez baitzuen segur gisa hartako jitea, baina xeheki, lañoki eta lasaiki kontatuz nolako urratsak eman dituen Euskal Herriaren eta Elizaren zerbitzari leial eta kartsu. Denbora berean bistan ezarria zigula bazter guzietan mende erdiño bat barne izan den itxuraldatze ikaragarria. Altxor hori da *Ene artzain-etxolak* liburu guziz argia, Auspoa sailean plazaratua duela 15 urte. Euskararen aldetik ere mirezgarria. Peio Jorajuria adiskideak aitzinsolasean azpimarratu duen bezala, liburu horretan gaitzeko itzulia egiten da Euskal Herrian gairak gehienik, gertakariz gertakari, baina kasu eginez ere, eta nola, gauza xume-xume batzuei. Dena begi eta dena beharri ibiliz, plazaz plaza eta xokoz xoko.

Emile Baigorri sortua zen, Bastida auzoaldeko Belarrea baserrian. Han zituen bere erroak. Eta nolako erroak! Sanoak eta azkarrak. Bere bizi guzian erro haiei atxikia egon da. *Ene artzain-etxolak* liburuan badira orotarar 357 orrialde eta lehen ehunetan Emile kasik alde bat zertaz da mintzo? Bere haurtzaroz eta gazte denboraz. Horretarik ere ageri da zernahi oroitzapen bazituela gogoan barna hartuak, ezin ahantziak beraz... Eta zoin poliki ez ditu kondatzen, irakurleari iduritzen ahal baitzaio bera ere han ibilki dela Emileren aldean. Zure aitzinean dituzu Bastidako bidexka eta errekek, hango etxe, landa, pentze eta larreak, bai eta azkenean Baigorri guzia... Egiten duzu ere anitz jenderen ezagutza, Emileren familia, haren auzoak, eskolako lagunak, Miel eskalapoigilea, Beñat espartingilea, eta zonbat holako...

Bulta bat har nindazke oraino, ahantzia bezala, oroitzapenez oroitzapen Emileren haurtzaroa gogoan. Baina badugu oraino ainitz bide egiteko eta goazen aitzinago...

Gure bastidar gaztea segi dezagun lehenik Uztaritzeko seminario ttipirat. Apez egin behar zuela, gisa hartako deia entzuna-eta, bide horretako lehen urratsa hori zuen, Uztaritzerat joatea. Han, Emile tanpez sartu zen arrunt mundu berri batean. Eta mundu berri hortan, batzuk bada euskaldunak, eta euskaradunak, beste batzuk ez hala. Dena den, Emile laster jarri zen bere bizi berriari eta bada gauza bat aldi bat baino gehiago azpimarratu duena, nola han berehala kausitu zituen euskara gero eta gehiago maitarazi nahiz ari ziren irakasle batzuk. Besteak beste, Etienne Salaberry heletarra eta, oroz gainetik, Piarres Lafitte denbora hartan ez zena oraino *Herria* astekariaren zuzendari baina ezagutua ordukotz euskalgintzan alde bat lan eta lan plantatua zelakotz... Piarresekin Emile azkarki berotu zen euskaldungoaren alde. Gero jin ziren Baionako seminario handian iragan behar urteak. Lehen urtean berean, gertakari berezi batekin, gertakari bat ustegabeko ondorioak ukan zituena gure Emilerentzat. Aita Candau bearnesa zen orduan Baionan zuzendari eta bat-batean, irakasleak eskas zirela asko tokitan, urte batentzat Emile, seminario handian hartzeko partez, igorri zuen Mauleko kolegiar, irakasle lagun bezala. Baionan urte batez gibelatuko zaizkiola bere ikasketak baina bestalde ez zela hain galtzaile izanen, Mauleko egonaldi

horretan gauza franko ikasiko ere zuela. Gauza franko ikasiko zuela Emilek, zer ote zuen gogoan seminarioko zuzendariak? Hori ez dakigu baina dakiguna da Emilek ezagutu zuela orduan Zuberoa, ordu arte ez zuena kasik batere ezagutzen, eta hango ohitura bereziak, hango bazterrak, hango jende asko, eta hori azkarki preziatu zuela bixtan da.

Urte baten buruan, jo beraz Baionako seminariorat. Bost urterentzat baina artean soldadugoa eginez, orain ez da gehiago egiten baina orduan bada, eta Emilek egin zuen erizain zerbitzu batean, lehenik Bordeleko ondoan eta gero Tolosan.

1951ko ekainaren 29a, egun handia Emilerentzat. Baionan apez ordenatua izan zen eguna. Apez berri haietan, Emileren lagun handiak, Jean Hiriart-Urruty hazpandarra eta Joseph Camino arnegitarra.

Apeztu-eta, ondoko urrian apezpikuak Emile izendatu zuen Hazparnerat bikario. Bizikletaz joan zen Hazparnerat larunbat arratsalde batez... Harat orduko, Justin Mirande zuberotar erretore xaharrak erran zion Omia Santuko meza nagusian, zombait egun bakarren buruan hain xuxen, predikua haren gain izanen zela... Emile laster laketu zen Hazparnen.

Bai, Emile laster jarri zen Hazparneko bizimoldeari. Hazparnen bazen denetarik, laborari, ofiziale, zapatagin langile eta nagusi. Denek beren sail berezia eramaki. Denek ongiatorri goxoena egin zioten bikario berriari. Emile hangotu zen denbora guti barne. Hango hitz berezi batzuk ere laster sartu zituen bere hiztegian. Hala nola elizaren aitzineko plazari "karkana" erraten ziotela. Denboran, noizbait, karkana ezartzen baitzen plaza hartan, auzitegi batean gaizkile bezala zigortuak denen aitzinean atxikitzeko, orenak eta orenak berdin, taula batzuen artean gurutzefikatuak bezala. Beste hitz bat ere ikasi zuen baina bere liburuan ez du deblauki sartu, ez zeukalakoz hain polita orobat, baina nik salatzen ahal dizuet haatik batere beldurrik gabe. Hauxe idatzi du Emilek: "Hazparneko elizan bazen lehen galerian herriko kontseilukoen korotegia, buruzagien errespetuzko lekua, beste izen bat ere baduena omen, baina bego horretan". Bai bego horretan Emilek ez baitzuen idatzi nahi zein zen delako izena. Eta zoin zen bada izen hori ? Hazpandarrek, halako trufa aireño batekin, hautetsien aulkitegi berezi hori deitzen zuten...astotegia!

Horiek hola, Emile ez zen luzaz egon Hazparnen. Bi urte bakarrik. Apezpikuak igorri zuen Donibane Garazirat, laborantza eskola bat behar zela han ireki. Frantsesenea deitu zutena. Apezpikuak ez zuen hautu hori ustegabetarik egin. Bazekien Emile biziki atxikia zegoela laborantzari eta laborarieri. Zombait denboraren buruan, bideko istripu batean franko handizki kolpatua izanik, Emilek utzi zuen Frantsesenea Urruñarat joateko bikario kondu.

Han ere lan ederrik akulatu zuen. Euskal antzerkiaren sustatzeari ere azkarki lotu. Gero eta kar gehiago agertuz ere bertsugintzaren sail guziz balios horretan. Eta bai, luzaz eta luzaz Emile izana da bertsutzale guziz suharra. Saio frankotan partzuer, edo gaiemaile, edo epaimahaian berdin... Dela Nafarroako txapelketan, hamar bat urtez, dela Euskal Herriko txapelgo nagusian, lau aldiz, azkenik 1982an. Zazpi urteren buruan, Emilek segida berri bat hartu behar. Denbora hartan baziren Hazparnen misionestak, ez Afrikarat edo Jainkoak daki norat joaten ziren (eta diren) horietarik baina hemen berean herriz-herriz ibiltzen zirenak. Sail hori ere zazpi urtez berea ukanen du Emilek. Eta horra nun izendatzen duten Aiherrako erretore. Hor ere, bere bertute nasaia agertuko du. Herritarren zerbitzuko baina ere partaide Bibliako, mezako eta beste eliza-testu frankoren euskaraz ezartzeko lan guziz ederrean. Aiherra biziki maitatu duela, ez dugu dudarik. 1980an plazaratu ere baitzuen liburu balios bat, *Aiherra, Nafarroaren leihoa*. Aiherran 11 urte egonik, Emile joanen da Irisarrirat, Suhuskune ere bere gain. Oroitzapen on franko atxiki du-eta Irisarriko egonaldiaz. Frango egonaldi luzea, 15 urte iraun duena. Gero, joan zen Donibane Garazirat, laguntzaile bezala, eta azkenik, ahultzen ari-eta, Kanboko Arditeia xahar-etxerat.

Bere apez-lan guzien artetik, bertsularitza ere sustatuz, ja erran dudana bezala, pilotatzale erne eta

kartsu agertuz bestalde -bera ere hein bat gazte zeno pilotan ari izana arras poliki- Emile ez genuen segur aireari so egoten diren horietarik baina alde bat lan eta lan aritzen diren xinaurri baten parekoa. Idazle fina, biziki fina. Lan batzuk argitaratuak *Gure Herria* aldizkarian bai eta Iker sailean. Batzuetan Sokorri izenordea baliatuz. Sari asko ukanak. Pilotarien Biltzarrak omendua, Euskal-Herriko Idazleen Elkartek ere bai. Besteak beste. Eta nola ez gain-gainetik gorets *Herria* astekariaren zuzendari bezala ereman duen saila. Kargu hori, bainan erraten ahal genuke ere karga hori, bizkarrean hartu zuen 1969an. Atxiki du 34 urtez, 2003ko biltzar nagusia arte, ez baita guti! 2009ko martxoan, *Herriak* atera zuen bere 3500. zenbakia. Ordu arte egin bideari behako bat ematen geniola, Emile Larre deitu genuen gure "zuzendari txapeldun". Handi eta iraunkor izan da zinez Emileren eragina. *Herriaren* zuzendaritzan bai eta aipatu ditugun sail askotan. Bai, Emile izan da maisu eta eredu. Euskaltzaindiak urgazle ohoratu zuen 1967an, euskaltzain oso hautetsi handik zazpi urteren buruan, René Lafon-en segida hartzen zuela. Egun, Donostian, esker onezko omenaldi bat eskaintzen diogu haren mereximendu handiak denek gogoan ditugula.

Janbattitt Dirassar